



EBAZPENA, 2024KO UZTAILAREN 8KOA, LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA, 2024-2025 IKASTURTE HASIERAKO ESLEIPEN-PROZESUAREN EGUTEGIA ALDATZEN DUENA.

Ikasturte hasierako esleipenen aurreko prozesuetan izandako atzerapenak direla-eta, ezin izango dira hasiera batean ezarritako epeetan argitaratu parte-hartzaileen behin-behineko zerrendak eta deitutako plazak. Hori dela eta, atzeratu egingo dira ikasturte-hasierako esleipenetan parte hartzen duten pertsonen behin betiko esleipenak eragiten dituzten prozesu kateatu guztiak.

Horregatik guztiagatik, honako hau

EBATZI DUT:

Bakarra.- Egutegia

Aldatu egiten da 2024ko ekainaren 21ean argitaratutako hasierako egutegia, eta esleipen-prozesua kolektibo bakoitzarentzat gaur, 2024ko uztailaren 8an, Hezkuntza Sailaren webgunean (<http://www.euskadi.eus/langile-ikasturte-hasiera-esleipena/web01-a3hklair/eu/>) argitaratuko den egutegiaren eta ordutegiaren arabera egingo da.

HELEGITEAK

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko uztailaren 8a.

BLANCA GUERRERO OCEJO
LANGILERIAREN KUDEAKETA ZUZENDARIA